

BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtzionatu ahal izateko hainbat elementu kontuan izan beharko ditugu.

Hasteko **baliabide fisikoak** beharko ditugu: ordenagailuak, telefonoak, programatzeko aplikazioak eta lanerako lokala adibidez.

Baita ere, **baliabide intelektualak** eta **giza baliabideak** beharko ditugu: appa sortzeko eta aurrera eramateko langileen esperientzia eta ezagutza eta gure appa merkaturatzeko abilezia beharko ditugu. Horretarako gu geuk izango gara langileak. App bat sortu behar dugunez, uste dugu langile asko ez direla beharrezkoa, horregatik bakarrik guk egingo dugu lan, inor kontratatu gabe. Hau da bakoitzaren abilezia eta trebetasuna:

- Leire: web orria eta programa sortzeko eta diseinatzeko abilezia du.
- Amaia: komunikatzeko trebetasuna duenez gure bezeroekin komunikatuko da eta komertzioaz arduratuko da.
- Hodei eta Jalal: informatikaren ezagutza eta softwarean espezializatzea dute.

Azkenik **finantza-baliabideak** izango dira beharrezkoak: guk jarritako dirua izango da. Aplikazio bat denez eta ez dugunez diru asko beharko guk jarriko dugu diru guztia.